

OIHENART ETA LAVIGERIE BI EREDU

Aurten bi mendeurren ospatzeak bidea ematen digu Euskal Herriko, hain zuzen ere, Iparraldeko bi seme ospetsu gogora elkartzeko: Arnaud d'Oihenart (1592-1667) eta Charles Lavigerie (1825-1892).

A. Oihenart, Mauleko semea, legegizona, euskal literaturan salbuespen gisa ageri zaigu, elizgizon izan gabe euskal letretan toki handia lortu izan duelako. Egin-eginean ere, zoritxarrez, letra alorrari dagokionean hutsune nabarmena ageri zaigu historian zehar Euskal Herriko gizarte zibilean, euskara idatziaren bilakaera historikoa, hainbatetan, elizgizonen esku izan delarik.

Zer gertatuko ote zen, gertatu ere, euskal literaturan, Oihenartek eta beste zenbait elizgizonek bezala, legegizonek, medikuek, zientzigizonek, aristokratek, politikoez, ingeniariak, arkitektoak, hitz batetan esanda, historian zehar luma erabili izan duten Euskal Herriko seme-alabek beren idazlanetan euskara zein euskal gaiak erabili izan bazituzten?

Oihenart, legegizona, historialaria, olerkaria, euskal esaeren biltzailea...dugu. Beraren idazkiek, «Notitia utriusque Vasconiae», «Les Proverbes Basques», «Zaharzaroa neurthizetan» etabarrek

historia alorrean zein literatur alorrean oihartzun handia izan dute. Idazki horiek direla bide, ondotxo mereziak izan ditu, aurten, beraren jaioturteko laugarren mendeurrenean, hor-
hemenska eskaini izan zaizkion omenaldiak.

Euskal Herriak gogo biziz eta eskuzabalez gogoratu nahi izan du euskal literaturari zein euskal historiari halako ekarpenak eskaini zizkion gizon ospetsua.

Ch. Lavigerie, Baionan jaioa, euskal izaeraren ezaugarriak nabarmenenak aditzera eman zituen gizona dugu; egin-eginean ere, ekimen eta iharduketa handikoa zelarik, gizon-emakume behartsuenen artean bizi izan zen gizon ekilea; era berean, oso diplomatikoa, elkarrizketazalea eta bakegilea ere bai. Beraren heriotzaren 1. mendeurrena dugu aurten.

San Frantziskoren antzera misiolari handia izan zen, buru eta belarri behartsuen zerbitzuan aritu zelarik. Bizitza osoa misio-lanetan erabili zuen. Beraren misio-lekua Afrika, hain zuzen, Argel izan zen. Misiolaria, apezpikua eta kardinala; kultura handiko gizona, bere burua afrikarrei eskaini ziena; benetako askatasunaren zaletu sutua izanik, ahalegin guztiak esklabutzaaren aurka, arazo horri buruz europearren kontzientziak esnatuz, lanean jarri zituen. Afrikar askeak nahi zituen, Kristo benetako askatzaile handiaren berri izan zezaten. Zeregin honetarako «Aita zuriak» eta «Ahizpa zuriak» sortu zituen. Bihotzez eta gogoz animatu, bultzatu, zirikatu zuen emakumea lanera; gehiago oraindik, Afrika ebanjelio bideetara ekartzeko ezinbestekotzat jo zuen emakumeek apostolutzan partehartzea. Eta guzti hori, emakumea hainbestearaino baztertuta zeukaten arabeen artean.

Lavigerie, bide handiak, eliza eta gizakiak bat eginik, maite izan zituen euskalduna dugu; asmo handik zituen euskalduna,

baina, ere, berean oinak Afrikako eguneroko bizitzan irmoki kokatuak izan zituen; «afrikar» bilakatu zen bere bizitzeko eran..., «oso-osoan besteengana hurbiltzen jakin zuelarik».

Egitan aurrerakuntza eta askatasunaren alde borrokatu zuen gizon unibertsala izan zen; euskaldunaren irudia munduan zehar, bizitza besteen alde emanez zein etengabe aurrerakuntza eta kultura bultzatuz zabaldu zuen, gizon-emakumeon duintasuna gizarteratu egiten duen kristautasuna eskuzabalez eskainiz.

- *Oihenart eta Lavigerie*: bata, euskal kultura eta letrak bultzatu zituen; bestea, behartsuenak maitatu eta bere bizitza beraien alde ematen jakin izan zuen gizon ekilea. Zuheroan eta Lapurdin ezezik, Euskal Herri osoan ere bai, jarraibide ditugu Iparraldeko bi euskaldunok.